

Irulegiko multzora bisita gidatuei buruzko araudia

- Aranzadi Zientzia Elkartek bisita bertan behera uzteko edo aldatzeko eskubidea gordetzen du eguraldi txarragatik (euria, bero-boladak, etab.), alerta egoeran egonez gero edo Irulegiko multzora daramaten bideen egoera txarra bada.
- Behin bisita hasita, ezin izango dira sartu ezarritako ordua baino beranduago iritsi diren pertsonak. Era berean, bisitariak ezin izango dute taldea utzi edo taldetik desbideratu, ezinbesteko ezusteko kasuetan izan ezik.
- Oinezko ibilbidea Irulegi mendiko seinaleztaturako bide eta bidexketan zehar egiten da eta malda handiko tartek izanen ditu. Gainera, gailurrera igotzeko 150 bat eskailera daude. Hori dela eta, bisita ez da egokia aniztasun funtzionala eta/edo mugikortasun murriztua duten pertsona batzuentzat, adineko pertsonentzat edo osasun-arazoak dituzten pertsonentzat, baldin eta bisita egiteko gaitasuna mugatzen badute. Honela, antolatzaileek ez dute beren gain hartuko bisita behar bezala egiteko orduan baldintzatzaile horiek sor ditzaketen ustekabeen erantzukizunik.
- 12 urtetik beherakoek etengabe joan behar dute heldu batek gainbegiratura, eta beste bisitariak gogaitu ditzaketen portaerak saihestu behar dituzte.
- Bisitarien betebeharra da:
 - Gidek adierazten dizkieten jarraibideak errespetatzea, bisitaren ibilbideari eta hartu beharreko neurriei dagokienez, bai eta larrialdiren bat gertatuz gero eman beharreko urratsei dagokienez ere.
 - Norberaren eta taldearen segurtasuna zaintzea, mendirako arropa eta oinetako egokiak erabiltzeari, hidratazioari eta eguraldi txarretik babesteari buruzko gomendioei kasu eginez.
 - Irulegi mendiko natura- eta kultura-ondarea errespetatzea, baita bertan lan egiten duten arkeologoen lana ere, batez ere Irulegiko multzoaren barruan, zeina Interes Kulturalako Ondasun izendatua baitago.
 - Bisitaren ibilbideaz kanpoko eremuak ekiditea.
 - Ibilbide osoan behar den ordena eta arreta mantentzea, telefono mugikorrek isilaraziz eta bisitan parte hartzen duten pertsonak uneoro errespetatuz.
- Aranzadi Zientzia Elkartek ez du erantzukizunik izango zuzenkiagabekeriak edo bisitarien bisita-arauak ez betetzeak eragindako edozein gorabehera, arrisku edo istripuren aurrean.
- Bisita Irulegiko gazteluan amaituko da, mendiaren tontorrean. Une honetatik aurrera, Aranzadi Zientzia Elkartek bisita amaitu ondoren, bisitariak Irulegiko aparkalekura jaisteko egiten duten ibilbidean ez du inolako erantzukizunik izango.